

altza

Garbera taldearen haserrea

Garbera taldeak lehen aldiz Lau Haizeta Koordinadorari haserre erantzun dio Eroski dela eta ez dela.

Uda partean, Lau Haizeta Koordinadora egungo proiektuarekin ados agertu zen. Aldiz, Garbera taldea, Eroski Altzan kokatzaren aurka agertu da.

Garberako partaideek oso kaltegarria ikusten dute. Beren iritziz, Eroskik ez du lanpostu berririk sortuko, are gehiago, orain arte inguruan bizirik dirauten denda txikiak apurtuko ditu.

Gainera, talde honek ez du uste geografikoki Garberako ingurunea egokiena denik, ez dago komunikazio sare egokirik eta Altzako berdegune bakarra apurtuko duen eraikuntza dela diote.

Eroski ez eraikitzea helburu

Garbera taldea Altzan



Argazkia: Inanol Otegi

Talde honek ez du uste geografikoki Garberako ingurunea egokiena denik.

Komunikazio sare egokirik ez dago.

Eroski hipermerkatua jarri behar zutela konturatu bezain laister sortu zen. Hasiara batean, Lau Haizeta Koordinadorekin bat zetozen, baina denbora pasa ahala bide ezberdinak hartu dituzte.

Garbera taldearen helburu bakarra Eroski ez

eraikitzea da. Horretarako, hainbat eta hainbat instantzia egin dituzte. Besteak beste, epearen luzapena eskatu zuten Udalean, Hitzarmen Berrezarketa Errekurtsoa ipini zuten eta azkenik, delegazio eta hitzarmenak berrikustea eskatu zuten.

Erantzunik ez

Guzti honi ez zaio erantzunik eman, nahiz eta Alkatearen erantzuna jasoko zutela agindu zitzaizen.

Honetaz gain, arazoaren larritasuna ikusita Juan San Martin Ararteko ohiarengana jo zuten, eta bertatik ere erantzunik ez dute jaso.

Taldekideen esanetan, «instituzioek Garbera taldearean atzekaldean alderdi politikoren bat dagoela diote», taldeak erabat ukatzen du hori.

Baina Garbera taldearen haserrea ez da bakarrik administrazioarekiko, «komunikabideen erantzun falta eta manipulazioak» gogor kritikatu ditu: «isiltasuna, Altzako biztanleen kalterako izan da eta horrek, epe luzera damu araziko gaitu».

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Jose Luis Jauregi Harategia-Urdaitegia

Txirrita Bertsolaria, 66 ALTZA
Tfnoa.: 39 18 99

HIPER LARRATXO

Opariak - Barruko Arropa - Tresneriak
Jostailuak - Bisuteria
Bertsolari Txirrita 10 ☎ 40 05 95 DONOSTIA

TXIRRITA-ZOO

Txori denda

Txirrita bertsolaria 16,
☎ 39 24 68

Gure auzoan bertan badugu aukera



Gozo eta bonboi denda

Bertan eginak
Etxez-etxeko banaketa

Txirrita bertsolaria, 3 • Tfnoa.: 391605
ALTZA



Ordubeteko epean errebelatua

Larratxo pasealekua, 26 % 40 06 97
DONOSTIA



CALZADOS
ZABALO

Oinetakoak - Poltsak eta osagaiak
Larratxo 16, ☎ 39 14 15 DONOSTIA